

# **AMURRIOKO EAJ-PNV-K PERTSONEN ZAINZAREKIN KONPROMETITUTAKO UDALERRI BATEN ALDEKO APUSTUA EGIN DU**

- **Txerra Molinuevo Laña talde jeltzaleko alkategaia, bere hautagaitzako kide guztiez inguratuta, jarraitzaile eta herritarrekin egindako hautagaitza berriaren topaketaren buru izan da gaur arratsaldean Elexondo kalean egindako ekitaldian**

Amurrio, 2023ko apirilaren 18an

Txerra Molinuevo Laña Amurrioko EAJ-PNVko alkategaia eta EAJko kide guztiak afiliazio, jarraitzaile eta herritarren aurrean aurkeztu dute euren burua gaur arratsaldean Elexondo kalean egindako topaketa batean.

Amurrioko hautagai jeltzaleak bere hautagaitzak batzen duen esperientzia profesionala eta bizi esperientzia berretsi du “zorionekoa naiz, talde izugarri batez inguratuta nagoelako, Amurrio garatzeko prest eta ilusioz dauden pertsonen inguratuta, gure herriak lurralde mailan erreferentzia izaten jarrai dezan”. Azken urteotan bizi izan dugun krisi handiaren ondorio batzuk oraindik gainditu gabe badaude ere, “bada garaia Amurriok bere etorkizuna eraikitzen jarrai dezan”.

Txerra Molinuevo Laña izango da Amurrioko EAJ-PNVren zerrendaburua datozen udal hauteskundeetan, “pertsonen zaintzarekin konprometitutako Amurrio, herri feminista, anitza, jasangarria, bizia eta gure bizi-proiektua hemen garatzen jarraitu ahal izateko beharrezko aukerak eskainiko dituen Amurrio bat bultzatzeko helburuarekin. Jarduera ekonomikoa, jarduera soziokulturala eta beharrianak beteko dituen udal-zerbitzu eta -instalazioak dituen Amurrio bat, alegia”.

Amurriok aurrera egiteko proiektuekin, herritarrei entzunez eta kalean egonik, hitza eman du gaur Txerra Molinuevo Laña Amurrioko EAJ-PNVko alkategaiak, nork maiatzaren 28ko udal hauteskunderi begira bere hautagaitzaren kideak aurkeztu dituen.

“Amurriok aurrera egin dezan etorkizuneko proiektu batekin konprometitutako talde izugarri batez inguratuta aurkeztu naiz. Profil eta adin desberdinetako pertsonekin; gazteenen gogoarekin eta beteranoenen esperientziarekin” adierazi du hautagai jeltzaleak.

Molinuevo Lañak ez du aukera pasatzen utzi nahi izan pertsonen bere proiektuan duten garrantzia nabarmentzeko eta haien inplikazioa eta babesa bilatzeko.

“Kalean egoten jarraituko dugu, Amurrioko bizilagunei entzuten, guztiok garelako gure herriaren etorkizuna. Amurriok aurrera egiten jarrai dezan gure etorkizunean lan egiteko konpromisoa hartzen dut.

### **Hauteskunde-programaren ildo nagusiak**

Amurrio EAJ-PNVko hautagaiak bere hauteskunde-programaren ildo nagusiak azaltzeko aukera ere aprobetxatu du. Programa horretan, pertsonak udal-politiken erdigunean egon behar dutela nabarmendu du. “Azken urteotan egin dugun bezala, Udaletxe hurbila, eraginkorra eta gardena izateko lan egingo dugu, betiere pertsonak ardatz izanik eta partaidetza sustatuz”.

EAJ-PNVren Amurrioko programaren ardatz garrantzitsuenen artean, kalitatezko enplegua eta prestakuntza sortzea eskualdean eta guztiontzako Amurrio bat lortzearen konpromisoaren barruan zerbitzuak eta instalazioak hobetzea, nabarmentzen dira. Halaber, trantsizio energetikoa bultzatzen eta politika feministak ezartzen jarraitzeko konpromisoa adierazi du.

### **Amurrio 2023 EAJ-PNV hautagaitza**

1. Txerra Molinuevo Laña
2. Estibaliz Sasiain Furundarena
3. Imanol Llano Hernaiz
4. Naiara Barallobre Salcedo
5. Monika Arbaiza Beitia
6. Ixone Saratxaga Ibarretxe
7. Beñat Busquet Ugarte
8. Arantzazu Saratxaga de Isla
9. Julen Sasiain Abin
10. Paula Barceló Balado
11. Eduardo Saratxaga Isasi
12. Arantza Picón Santamaría
13. Alberto Artetxe Vicente
14. Marisa Vitorica Aldama
15. Jokin Bardeci Guzman
16. Edurne Elorza Gómez

17. Juan Luis Perelló Zabala
18. Josune Irabien Marigorta
19. José Luis Tellería Larrea
20. Tere Ramos Pinedo